

Iparaldean inbertitzea

Iragan astean albiste garrantzitsua gertatu zen Euskal Herrian: Hegoaldeko enpresa batek Iparaldean egingo duen inbertsio garrantzitsu baten iragarpena. Urtsa Erraztik zuzentzen duen Laudioko (Araba) JEZ enpresa txikiak 15 milioi euro inbertituko ditu Nafarroa Behereko Arberatze herrian beste enpresa bat sortzeko, Arberatzeko Trenbide Materialak (MFA), hain zuzen ere. Trenbideetarako materiala egingo dute eta 43 langile enplegatuko ditu. Lau urtean 80 lanpostura ailegatzea espero dute. Gure lurraldearen bi zatien arteko harreman naturala oso garrantzitsua da. Dena den, askoz ere garrantzitsua goa da inbertitzeko Hegoaldeko enpresek Iparaldeko eremuak aukeratzea, haiek langabezia eta sektore produktiboen eraldaketa handiagoa pairatzen baituzte. Eta iraupenerako asmoarekin gainera, ekoizpen eta lan kostuen eboluzioaren arabera herrialde batetik bestera mugitzera behartzen duen filosofia multinazionalaren aurka. Egoera hori Euskal Herrian ere milaka lanposturen galera ekarri duen deslokalizazio politika bihurtu da. Arrazoi horregatik enpresa ekimen hori zoriondu behar da eta arrakastarik handienak opa, Iparaldeko biztanle horien ongizaterako ere izango baita. Horrez gain ekimen hori Hegoaldeko beste hainbat enpresarentzat eredugarri izatea ere desiragarria litzateke. Iparaldean sektore espekulatiβοetan ez baina etorkizuneko sektoreetan inbertitzearen alde egin behar da, horrela Euskal Herriaren zati horren garapen jasangarrian lagundu eta bertako gizon-emakumeak orain arte bezala emigratzera behartuak senti ez daitezten.

Juan Mari Arregi

Euskarara bikoiztutako hiru film

ZINEMA sektoreko hainbat enpresa txikiren eta Aretoko Filmak enpresa banatzailearen ekimenez, euskarara bikoiztutako hiru film estreinatuko dituzte aurki. Euskarazko filmak ahalik eta gehien zabaltzea dute helburu. Marian Galarraga Tinko enpresako zuzendariaren hitzetan, “diru-laguntza jaso ostean filma armairuan sartu eta hantxe uzten da sarri; hori da guk ekidin nahi duguna”. Gaztetxoentzako hiru film eskainiko dituzte: *Irabazle & galtzaile* (urriaren 12an), *Hiru mosketariak* (azaroaren 1ean) eta *Winkyren zaldia* (azaroaren 23an).

Axularren Gero pdf-an

ARMIARMA proiektuaren Klasikoen Gordailuan hainbat obra faksimile modura sartu dituzte, pdf formatuan. XVII. mendeko hamazazpi lanekin hasi dira, Axularren *Gero* edo Tartasen *Onsa hilzako bidia* tartean.

BAHEA

Juan Carlos Moreno Madrilgo Unibertsitate Autonomoko hizkuntzalaria:

El Mundon esanak: “Españian baliagarriagoa da euskara ikastea ingelesa baino. Ingelesa ikasten duen orok ingelesa baino euskara edo katalana erabiltzeko aukera gehiago ditu, ez baitute harremanik ingelesekin. Pentsa daiteke ingelesa inposaketa dela eta ez da inor kezkatzen”.

Deian esanak: “Ez dut onartzen niri italiar batek ingelesez galdetzea. Gainera, hizkuntz inperialismo anglosaxoiak esan nahi du denok bikain hitz egin behar dugula ingelesez. Ez du balio ingelesa ulertzeak anglohiztunek ingelesez hitz egin behar baitute, ez beste hizkuntza batean. Zenbat ordu eta diru erabiltzen den ingelesa hobetzeko! Hori dena beste hizkuntza batzuk ulertzeko inbertituko balitz, gertukoenetatik hasita: euskara, galiziera, katalana... eleanitzagoak izango ginatke. Elebitasunak ez dauka zertan izanik gaztelania eta ingelesa jakitea”.



GASTEIZ

Gasteiz hiribidean, irailaren 28tik urriaren 14ra

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

Erabaki ausarta, helmuga lausoa

“EZ DA KONTSULTARIK izango” nioen artikulua honetako tituluan duela hilabete. “Beste behin ere bapo erratu haiz bada”, esan nion neure buruari telebistan Ibarretxe lehendakariaren asmoak entzuten ari nintzela. Eta bai, oraingoz titulua- ren espirituak hanka sartzea iradokitzen du, kontsultarako data zehatza hor dagoelako jada, 2008ko urriaren 25a. Hala ere, oraindik kontsulta gauzatea falta da.

Datarena, horixe da, seguruenik, joan den ostiralean Ibarretxe lehendakariak aurkeztutako ibilbide orriaren ezaugarriak esanguratsuen eta zehatzena, data bat. Gainerako guztia oraindik zurrumbilo bat da, kontsultari dagokionez apurka argituko dena, baina ez dakiguna ongi noraino iristeko asmoa duen eta, batez ere, euskal politikaren esparruari zer ekarriko dion.

Kontsultarako lehen data –bigarren baterako data ere bai baitago, 2010eko bigarren seihilekoa– hor dago, beraz, eta orain ikusi beharko da hala egingo den ala ez. Hau da, funtsean ea hilabete hauetan, Jaur-laritzako hirukoa ezker abertzalearekin akordio mailaren bat lortzeko gai den, eta ondoren erreferenduma gauza daitekeen ala ez.

Zeren eta Espainiako Gobernuak, Zapateroren ahotik, argi utzi du erreferenduma egin ez dadin legezko tresna guztiak erabiliko dituela. Horretarako formula posible bat ere aurreratu zuen joan den igandean *El Pais*-ek: Eusko Legebiltzarrak ekainean kontsultari atea zabalduko balio, nahikoa litzateke Espainiako Gobernuak Auzitegi Konstituzionalaren aurrean helegitea jartzea, bost hilabetez neurria legezko indar barik

JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS



Josu Jon Imazen buruzagi agurrean, besarkadek ez zuten ezkutatu EAJren baitan diren ikuspegi desberdinak.

uzteko. Nola gaudituko luke Eusko Jaurlaritzak langa hori? Kontu askoz txikiagoengatik ere, Madrilgo Gobernuan izan da Gernikako Estatutua behin-behinekoz bertan behe- ra uzteko tentaldirik azken zortzi urteetan.

Gauza bat da data zehatz bat jar- tzea, ez dena gutxi, besteak beste EAJk ez duelako horrelako jarrerarik erakutsi azken 25 urteetan. Baina bestea da konfrontazio demokratiko- aren eskema onartzea, honek izan ditzakeen ondorio guztiekin. Eta hori, gaur gaurkoz, eta batez ere EAJren baitan diren ikusmolde des- berdinak kontuan hartuta, askoz sinesgaitzagoa da.

Abertzaleen artean askotan aipa- tzen den konfrontazio demokratiko hori, bestalde, ez dago argi zer den edo nola bideratu beharko litzate- keen, baina ez jeltzaleei begira baka- rrik, abertzaleatasunaren arazo da oraindik ere. Espainiako Konstituzioak ziklo bat ireki zuen duela ia 30 urte eta horretan gaude korapilaturik.

Ibarretxe lehendakariak, dena den, gai hauek guztiak kontuan hartuta izan behar ditu bere ibilbide orrian eta izango ditu buruan hainbat irtenbide.

LEHENBIZIKO ZAILTASUNAK aurrei- kusitakoak beharko lukete: PSOEren

ezezko borobila Ibarretxerekin negoziatzeari eta ezker abertzale-aren arbuioa, batez ere kontsulta EAera mugatzen delako. PPren jarrera ere oso argia da.

Ekainera iritsi aurretik mar- txoko Espainiako hauteskun- de orokorretatik iragan behar da eta hauetako emaitzak ere garrantzitsuak izango dira Iba- rretxe ekainera zein indarrare- kin iristen den ikusteko. Orduan, Eusko Legebiltza-

rrean Ibarretxe planarekin gertatu zen antzeko argazkia errepika liteke agian, hau da, ekimena EHAKren boto kritikoarekin aurrera ateratzea. Jakina, orain egoera desberdina da, batez ere tartean bake prozesu bat izan delako, eta ikusi beharko da hor gertatutakoek nola eragiten duten ezker abertzalearen jarreran.

OHIKO bizimoduaren ikuspegitik oraindik urruti da 2008ko urria, herritarrok makinatxo bat kontu izango ditugu ordura arte. Baina ikuspegi politikotik, D eguna etzi bertan da eta EAeko abertzale askok du buruan ea zer egin beharko ote duen eguna iristen bada, batez ere ezker abertzalekoak. Dagoeneko ez da nahiko hausnarketa, eztabaida, politikarien erabakiak... oraingoan norberak hautatu behar du, eta seguruenik oso testuinguru zailan (eskubide zibilen ukazioa, ETAren jarduna, Madrilgo agintarien jarrera gogorra, bertigoa...).

Ibarretxe lehendakaria bere bizitza politikoaren jaurizirik garrantzitsuena ematera doa, ausart, eta nekez pen- tsa daiteke bere buruan bakarrik hau- teskunde autonomiko aurreratuen interesa dagoenik. Panorama politi- koa astinduko du, dudarik ez, hortik aurrera ezer gutxi esan liteke.